



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

KREAZIOA

ERANSKINA

ERAGILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza

KREAZIOAREN KONTAKETA JAINKOA AGINTEAN IRAKURTZEKO ARGIBIDEAK

Has 1, 1-2, 4



Bibliaren hasieran, zazpi egunetan kreazioa egin zela kontatzen da. Istorio ederra da, baina hainbat aukera ematen du gaizki ulertzeko. Argi dezagun gaizki-ulertua hasieratik. Hasiera 1 txatalean jasotzen den kreazioaren kontaketa ez da zientzia-orria; ez du unibertsoaren jatorrien azalpen zientifikorik ematen. Are gehiago, orri teologikoa da eta hainbat baieztapen egiten da:

1. Jainkoa dagoela kreazioaren jatorrian
2. Gizakia dela kreazioaren gailurra
3. Jainkoak ez gaituela inoiz bertan behera uzten
4. Jainkoak konpromiso iraunkorra duela kreazioarekin eta etengabe gorde eta zaindue giten duela

1. Jainkoa kreazioaren jatorrian.

Kontaketa zein testuinguru historikotan idatzi zen jakinda uler ditzakegu idazlearen benetako asmoak. K.a.ko VI. gizaldian idatzi zuen, Israelen historiako unerik larrienetakoan. K.a.ko 587an, Nabukodonosor Babiloniako erregearen soldaduek Jerusalem eta bertako tenplua suntsitu egin zituzten. Herritar gehienak atxilotu eta Babiloniara erbesteratu zituzten. Bertan, erbesteratuek Jainkoaren bedeinkapena galdu egin zutela eta Jainkoak aurka egin ziela sentitu zuten. Bertan behera utzita, itxaropenik gabe sentitzen dira. Hasiera liburuaren egileak sentipen hauen aurrez aurre bestelako ideia jartzeko idatzi nahi du bere kontaketa; hau da, Jainko sortzaileak bere kreazioarekin, gizadiarekin eta Israelekin konprometituta jarraitzen duela helarazi nahi die. Herriak fede eta itxaropenean iraun dezake, Jainkoak ez baitu bertan behera utzi.

Jainkoak mundua sortu zuela kontatzen da. Idazlea eta honen idazkien jasotzaileak gure kultura tradizioetik desberdina den kultura tradizioak dira. Tradizio hori ulertu egin behar dugu helarazten dena eta nola helarazten den ulertzeko. Guretzat, gauzak egitura materiala dutelako dira, eta zerbait sortzea materiaren bidez gertatuko litzateke. Kreazioan pentsatzean, zera uste dugu: Jainkoak gauza materialak sorrarazten dituela (ezerezetik) eta bizia ematen diela.

Antzinatean, sortzea beste zerbait zen. Antzinatean, izateak xede funtzionala zuen. Horrela, esate baterako, beren ustez basamortua ez zen existitzen ez zuelako inongo egitekorik. Beraz, sortzea, zerbaiti funtzionaltasuna ematea da, ez bakarrik izatea ematea. Hau funtsezkoa da kontaketa ulertzeko. Hain zuzen ere, kontaketa 2. txatalean hasten da (1. txatala izenburu orokorra dela onartuta), "lurra nahas-mahas hutsa zen", dionean. Ura bazen, baina ez zuen ezerk "funtzionatzen" errealitate horretan. Jainkoak zeru-lurrak egin zituen, dena martxan jarritz, jarduten ipiniz, elementu bakoitzari egiteko bat esleituz. Jainkoak gauzei izatea ematen die eta egitekoa esleitu. Antzinako kulturetako idazkiek honako hauen bidez adierazten dute prozesu hori: izena eman, bata eta bestea bereizi, eta bakoitzaren egitekoa izendatu. Horixe egingo du Bibliak.

Kreazioaren prozesu funtzionala argi ikusten da Has 1 delakoan, Jainkoak elementuak izendatu eta bereizten dituenean. Lehen hiru egunetan, Jainkoak denboraren oinarriak, klima eta janaria sortzen ditu. Gure mundua eta gure bizitzak menderatzen dituzteno inarrizko hiru funtzioak dira. Has 1 txatalean, gauza garrantzitsua esaten zaigu: Jainkoari esker gauzatzen dela guzti hori.

Laugarren egunetik aurrera, ikuspuntua aldatu egiten da. Joera funtzionalari eutsi egiten zaio, baina Jainkoak, funtzioak ez ezik funtzionarioak sortzen ditu. Funtzionario hauek berariazko egitekoak garatzen dituzte (bereziki denboraren aldiak artikulatzea dagokien zerukoek) edo lehen hiru egunetako kreaziotik eratorritakoak (abereak). Funtzionarioen sorrera ere ekintza sortzailea da. Laugarrenetik seigarrenera doazen egunak lehen hiru egunen pare-parean daude.

Hasiera kontatu zutenek giza beharren arabera errealtateaz jabetzeak eragiten zien harridurak bultzatuta idatzi zuten, eta gauzen funtzionamendu miragarri eta zoragarrian Jainkoaren eskua ikusteko gauza izan ziren. Hona hemen adibide bat azaldu berri duguna argitzeko. "Etxea" hitzak bi adiera izan ditzake: etxea, eraikina, eta etxea, bizilekua. Egitura material eta fisikoak eusten dio eraikinari: instalazio elektrikoa, gasarena, teilatua eta eraikinari eusten dioten zimenduak, besteak beste. Baina "etxe" hori norbaiten "bizileku" bihur dadin, egitura fisikoa baino zerbait gehiago behar da; ezinbesteko dira hartu-emanak, maitasuna, samurtasuna, ulermena, eta lagun bi edo gehiagok bere egiten duten bizitzarako egitasmoa. Hasiera liburuko kontaketa honetan esaten denez, Jainkoa dagoeneko "etxe" den munduaz arduratzen da eta gizon eta emakumeen "bizileku" egiten du.

2. Gizakiaren sorrera.

Mundua da gizakiaren "bizilekua". Egilearen bigarren baieztapena da. Jainkoak seigarren egunean sortzen du gizakia. Ez da aipatzen gizonaren sorrerarako materialik erabili denik, hauxe baizik ez dio idazkiak: "Jainkoaren beraren irudira egin zuen; ar eta eme egin zituen". Antzinatean, irudiak irudikatzen zuenaren muina berekin zuela uste zen. Jainkotasunak gizakiaren bidez jarduten duela esan nahi du horrek, hau da, Babilonian erbesteratuta zeuden haien bidez ere jarduten zuela.

Gizakia Jainkoaren antz eta irudiko sortzea, ar eta eme eginez gertatzen da. Ez dago giza izaterik bi generoen bereizketatik ez bada; gizakiak elkarte izakiak dira eta giza elkarte oro gizonaren eta emakumearen arteko osagarritasunean oinarrituta dago. Horrela bakarrik beteko dute ugalkor izateko eta ugaritzeko egitekoa; gizon eta emakume bezala betetzen dute bakarrik Jainkoaren irudiko izateko bokazioa.

Jainkoak bere irudira sortzen gaituenean, guregan uste osoa dau, kreazioarekin dugun egitekoa beteko dugulakoan. Kreazioak gizadiari lotuta funtzionatzen du eta gizadia gainerako kreazioaren esanetara dago. Mundua Jainkoaren eskuetatik atera da gizakiaren eskuetara igarotzeko, gizakiak hobe dezan eta bere azkenera eraman. Jainkoak mundua mugarik gabe jendeztatzeko pribilegioa ematen dio gizadiari, menderatzeko agindua -nagusikeriarik eta suntsiketarik gabe- emateaz batera. Jainkoak erantzunkide egiten gaitu lan garrantzitsu batean: gure esku dagoena egin mundua beti mundu izan dadin. Jainkoak sortutako gainerakoak gobernatzeko egitekoa uzten du gure esku, kreazioa zaindu eta gauza bakoitzak dagokion egitekoa bete dezan.

Gizakiak Jainkoaren ordezkari edo mandatari bezala jardun behar du munduan; gizakiak, Jainkoaren ordezkari dira munduan. Hemen Hasierako kontaketa hau kreazioaren ekialdeko kontaketatik bereizi egiten da. Honako hauetan, errealtatea jainkoen zerbitzura jartzeko sortu zen. Hasiera liburuan, zero-lurrak gizadiaren mesederako sortu ziren. Horregatik, eta ikuspuntu honetatik, gizakiaren sorrera kreazioaren gailurra dela esaten da.

3. Jainkoak du bere kreazioaren gaineko agintea

Zazpigarren egunean, Jainkoak bere lana amaitutzat eman eta atsedean hartu zuen. Gure harridurarako, horixe da kreazio osoko egunik garrantzitsuena. Atsedena aipatzeaz batera, etenaldia edo siesta egitea datorkigu burura. Hala ere, antzinatean, jainko atsedetak sortutako errealtate serio hartzearekin du zerikusia, hau da, munduaren kargu egitea eta sortutako gauza bakoitzak dagokion funtzioa betetzeaz arduratzea da. Itun Zaharrean, atsedetak jardueren garapen arruntarekiko Jainkoaren konpromisoa dakar.

Gainera, antzinatean, jainko atsedena eta tenpluaren egitekoa lotuta daude. Tenplua, jainkoen egoitza zen. Bere egiteko nagusia ez zen herriarentzat bere ohikune sakratuak betetzeko leku bihurtzea. Tenplua jainkotasunaren etxea zen, leku santua. Horrezaz gainera, unibertsoaren kuartel nagusia, kontrol-gela, aginte-kabina zen. Beraz, Jainkoak atsedena hartu zuela esatean, beste hau diogu: Jainkoak, bere tenplutik, errealitateaz arduratzen dela; bere tenplutik bermatzen du bakoitzari sortzean egokitu zitzaion egitekoa betetzea.

Jainkoaren atsedena horrela ulertuz gero, hobeto jabetzen gara jainkozko kreazioaren sormen eta aberastasunaz. Jainkoa unibertsoan bizi dela dio Hasiera liburuak. Are gehiago, Jainkoa unibertsoan biziko ez balitz, munduaren izatea zentzugabea izango litzateke. Beraz, ikuspuntu horretatik, kreazioaren kontaktak zehatz-mehatz hauxe helarazi nahi die erbesteratuta eta itxaropenik gabe daudenei: Jainkoak munduan ematen duela agertzerak bere burua, errealitateari izatea eta funtzionaltasuna emanez. Horixe da zazpi egunen buruan izan den aldaketa. Lehen egunaren aurretik, "Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen", baina kosmos ez funtzionalaren gainean; Jainkoa zeru-lurrekin konprometituta zegoen baina oraindik ez zen munduan bizi, ez zen munduko "herritar". Unibertsoaren egitekoen ezarpena Jainkoak bere egoitza, bere atsedena finkatzen dituen hasten da, zazpigarren egunean. Mundua, mundu da Jainkoa bertan bizi delako.

Has 1 pasartearen egilearen asmoa ez da kreazioaren jatorri zientifikoaren inguruko jakin-mina asetzea, entzuleei Jainkoak bere kreazioa inoiz ez duela bertan behera uzten ziurtatzea baizik. Oinazetan bizi badira ere, Jainkoaren eskuetan gaude. Jainko sortzailea da beraiekin bizi den Jainkoa.



**Entzuteko,
klik egin irudian**